

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ausart!



WWW.EVENTSLISTED.COM

BASOBERRITZEARI ekin behar diogu. Baso ugari duten herri aurreratuek (Austria, Finlandia...) aspaldi heldu zioten baliabide baliotsu hori zorrotz arautzeari. Gu ere halaxe gara: baso ugari duen herri aurreratu. Eta araudia? Araudian hor konpon, Marianton!

Azken ia bi mendeetan halamoduzko kalitateko egur jakin batzuk ekoiztera jarri ditugu gure basoak, batik batik paper fabriketarako eta merke zuhurreko altzarigintzarako gaiak. Politika horren hondamenaren ondorioz, aurrerantzean beste xede batzuetara bideratu beharko da gure basoa. Bestela jai dugu, basoak eta guk.

Kalitatezko zura eta energia, horiek izango dira etorkizuneko basoaren etekin nagusiak. Eta honetarako bi baso mota abian jarri beharrean gara: baso-

gure honera, gure buruaren oihanera, gure basoaren garunera ekarri beharrean gara: lizarra, astigarrak, haltza, urkia, ametza, ezkia...

Aziendarentzat larre eta bazka-lekuak, perretxikozaletasuna, sendabelarrak, fruitu basak eta tokian-tokian axola duten beste etekin kulturalak ezingo dira baztertu, ezta ere.

Milaka urtetan ondu eta borobildutako baso-jakin-tza errekarera eraman eta jota hondatua dugu. Iraunkortasuna bioaniztasuna eta lurrari lotutako lanpostuak izatea bada, ekin basoari! Eskumena duenak arau beza, ausart! Basogintza berri bat abiatu eta lehenengoan asmatzea ez da erraza izango. Ahal den azkarren ekitea onena.



musika bulego osoa

baga-biga

musikarientzat baliabideak eskura

esne beltza
kaotiko
etxe
xutik
gaizka peñafiel
vendetta
anton
oinkari
disturbio

Historia del Rock Vasco

baga-biga
baga-biga musika ideiak
telef. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com